

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa baten funtsezko baliabideak edo baliabide giltzarriak erakunde batek bere jardura arrakastaz burutzeko behar dituen elementu edo aktibo nagusiak dira. Baliabide horiek ekonomikoak, giza baliabideak, intelektualak edo materialak izan daitezke, eta hauek enpresaren balioa sortu eta bere produktuak edo zerbitzuak eskaintzeko ezinbestekoak dira.

Hori kontuan hartuta orain gure enpresaren zerbitzua aurrera eramateko behar diren baliabideak aztertuko ditugu.



Lehenengo, baliabide fisikoak, enpresa batean ondasun eta azpiegitura ukigarriak dira, eta horiek enpresaren jardura garatzeko erabiltzen dira. Hauek dira gure enpresaren barruan aurki daitezken baliabide fisikoak :

- Gure lokala Gasteizko erdialdean kokatuta dagoena. Gure jardura nagusia burutzen den lekua eta ondoko gela psikologoa etortzen denean bere lana aurrera eramaten duen lekua. Egoitzan beste gela bat dago bulego bezala erabiltzen dena, non langileak biltzen dira lana aurrera eramateko eta programatzaileak eguneroko lana aurrera eramaten duen. Bi komun daukagu; bata enpresako langileentzat bulegoan eta bestea kanpoko jendearentzat (gure bezeroentzat).
- Ordenagailu bat programatzailearentzako eta beste ordenagailu bat beste langileentzako bulegoan daudenak.
- Bulegoetan erabiltzen den material orokorra, 4 ordenagailu-aulki, bi mahai handi eta banakako mahai bat eta hozkailu txiki bat jartzeko
- Makina saltzaile batzuk daukagu sarreran, non gehien bat zukuak ura edo aquarius daukagu eta elikagai ahalik eta osasungarrienak (zabor-janaria saihesten) makina hauek rentingari esker daukagu.
- Aire girotua gure enpresaren barnean tenperatura egokia egon dadin

Ondoren, baliabide intelektualak, ukiezinak diren aktiboak dira, baina enpresaren balioan eta lehiakortasunean eragin handia dute. Hauek dira gure enpresaren baliabide intelektual:

- Gure bezeroen inguruko informazioa, esaterako... bere informazio pertsonala gustuak, hobbyak, helbidea, telefonoa, aplikazioan bidaltzen duten mezuen backupa eta beste behar batzuk zehaztuta daudenak, esaterako psikologoaren beharra dutenak zehaztuta egongo da zergatik eta zertarako.

- Bezeroei eskaintzen diegun jarduerak prestatzeko erabiltzen dugun metodoa.
- Gure enpresaren web orria eta mugikorreko aplikazioa.
- Gure enpresaren marka eta logoa HarreGazte patentatuta dagoena.
- Gure jarduerak modu automatikoan antolatzeko programa beraien hobbyak eta beste informazioa kontuan hartuta.
- Gure langileen prestakuntza espezifikoa familien beharrei aurre egiteko eta haien eskaerei nola erantzun. Gehienok haur hezkuntzako teknikariak gara eta hori da gure formakuntza. Julenek ere Ingeleseko tituluak ditu atzerriko pertsonekin harremana ahalbidetzeko ingelesa hizkuntza ezaguna baita herrialde askotan.

Giza baliabideak langileen talentua, trebetasunak, ezagutzak eta gaitasunak dira, eta funtsezkoak dira enpresaren arrakastarako. Haien kudeaketa egokiak produktibitatea, berrikuntza eta lan ingurune osasuntsua lortzen laguntzen du.

- Gure enpresa osatzen duten giza baliabideak, guk geuk gara. Hiru haur hezkuntzako teknikari gaudenak pertsonekin eguneroko harremanetan eta egiten diren ekintzetara bezeroekin joaten direnak.
- Programatzaile batek lanaldi erdian lan egiten du enpresa. Baina enpresaren sortzailea ere dena. Bertan, bere eginkizunak dira, sare sozialak eguneratzea eta kudeatzea, horren barruan dauden eginkizunak, oro har, bere ardurapean daude. Web-orri eta aplikazioan dagoen informazioa eguneratzea eta eguneratuak izatea zerbitzurik hoberenak eskaintzeko edo web orriaren ere aplikazioaren eta web orriaren arazo teknikoak prebenitzeaz arduratzen da eta bere bere ezagutzetatik kanpo dagoenean laguntza egokiena aurkitzea.

Baliabide finantzarioak,hasierako inbertsioa, honen barruan sartu egiten da hau atera egin da gu geneuzkan aurrezkietatik eta gure familien diru laguntzetatik utzitako dirua 12.065€-etara ailegatu arte hori izan da gure enpresaren hasierako inbertsioa, giza baliabideak enpresan erabilgarri dauden finantza-baliabideak dira, eta hauek funtsezkoak dira enpresaren eguneroko jarduerak, helburuak eta hazkunde ekonomikoa lortzeko. Hauek izan dira gure enpresa martxan jartzeko izan dugun dirua

- Gure enpresa martxan jartzeko guk jarri ditugun aurrezkiak
- Familiak ipinitako diru kantitatea beraien aurrezkietatik hasierako inbertsioarekin laguntzeko.

